

Ebazpena: R 3/2022
Espedientea: 23/2013

Gasteizen, 2022ko urtarrilaren 24an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Soffía Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea RMSA zergapekoari dagokionez 2011. urteko eta 2012ko lehen bi hiruhilekoetako PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena. Gatazka hori 23/2013 espediente zenbakiarekin izapidetzen ari da arbitraje-batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1.- RMSAk Madrilen du sozietate-egoitza, eta alta emanda dago ontziak salbatzeko eta berreskuratzeko zerbitzuen jardueran, eta horretarako, besteak beste, Pasaiaiko portuan (Gipuzkoan) basea duen "SO" itsasontzia dauka.

2.- RMSAk ZAEARI sartu zizkion itsasontzi horretako langileei zegozkien lan pertsonalaren etekinen PFEZaren konturako atxikipenak, 2008tik 2010era bitartekoak.

GFAk behin-behineko likidazioak egin zizkion RMSARI aipatutako kontzeptu eta ekitaldiengatik; likidazio horiek ZAEAK bidalitako igorpen bidez ordaindu ziren.

3.- Ondoren, RMSAk ZAEARI eskatu zion 2011. urteko eta 2012ko lehen bi hiruhilekoetako atxikipenen sarrera bidegabeak itzultzeko, GFARA igorrita, eta aitortzen zuzenketa aurkeztu zuen haren aurrean.

4.- ZAEAK ukatu egin zuen sarrera bidegabeak itzultzea, ulertzen zuelako ez zela egiaztatu langileek foru-lurraldean lan egin zutenik.

5.- Aurretik inhibizio-errekerimendua egin ondoren, GFAk gatazka planteatu zuen 2013ko azaroaren 23an, eta eskatu zuen aitor zekiola eskumena duela 2011. urteko eta 2012ko lehen bi hiruhilekoen PFEZeko konturako lan-atxikipenak ordainarazteko, Pasaiaiko portuan basea duen "SO" itsasontzian zerbitzuak ematen dituzten langileenak.

6.- ZAEAk hasierako alegazioak aurkeztu zituen 2018ko azaroaren 23an, bere eskumena aitor zedila eskatuz.

7.- Espedientea ikusgai jarri zaie bi administrazioei eta ISSS enpresa-entitate publikoari, likidatu gabe eta aktibo eta pasibo osoa lagata RMSA desegiteko erabakiaren lagapen-hartzailea baita. GFAk bakarrik aurkeztu ditu azken alegazioak.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Bi administrazioek ez dute auzitan jartzen gatazka honetan zehaztu nahi dela nork duen eskumena itsasoan, Pasaiako (Gipuzkoa) egoitza-portuari atxikitako SO itsasontzian, zerbitzuak ematen dituzten langile batzuei dagozkien lan pertsonalaren etekinen PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko.

Bigarrena.- Arazo hori Arbitraje Batzorde honek 2018ko ekainaren 28ko R6/2018 Ebazpenean jada ebatzi zuen, 13/2015 Espedienteari buruzkoan, eta berariaz zuzenbidearen arabera zela deklaratu zuen Auzitegi Gorenak, 1.319/2019 zenbakiko epaian, 2019ko urriaren 4koan (Errek. zk.: 411/2018), ezetsi baitzuen ZAEAk ebazpen haren aurka jarritako errekurtsua.

Arbitraje Batzordearen ebazpen hark, Auzitegi Gorenak berretsitakoak, Bizkaian egoitza zuen sozietate batek egindako tributu-kontsulta ebatzi zuen; aipatutako sozietateak ordainsariak ordaintzen zizkien beren lana Murtzian egoitza-portua zuen itsasontzi batean egiten zuten langileei. Kontsulta egin zen jakiteko zein Administrazioari (ZAEAr edo BFAr) ordaindu behar zitzaizkion PFEZen konturako atxikipenak, itsasoko langile haien ordainsariei zegozkienak. Arbitraje Batzordeak ondorioztatu zuen administrazio eskuduna zela itsasontzia atxikita zegoen egoitza-portuari zegokiona eta ondore horietarako itsasontzia lantokitzat hartzen zela.

Ildo beretik, abenduaren 28ko 10/2017 Legeak –lehen aipatutako R6/2018 Ebazpena eragin zuen gatazka jarri ondoren emana– Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluari idazketa berria eman zionez (gaur egun indarrean dagoena), tripulatzailea atxikita dagoen lantokiaren lurreko kokapenean oinarritu zuen, halaber, Ekonomia Itunaren hutsune historikoa betetzeko irizpidea, itsasoko langileen atxikipenak ordainarazteko eskumenari dagokionez; gaur egun, aldaketa horren ondorioz ebatzi da eskumen hori.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- GFari dagokiola eskumena Pasaiako portuari atxikitako "SO" itsasontzian zerbitzuak ematen dituzten langileen lan pertsonalaren etekinen PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko, 2011. urtekoak eta 2012ko lehen bi hiruhilekoetakoak.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta ISSS enpresa-entitate publikoari.